

## 75/2020 EBAZPENA, ABENDUAREN 22KOA, INFORMAZIO PUBLIKOAREN SARBIDERAKO EUSKAL BATZORDEARENA

**Espedientea:** 2020/000299

**Gaia:** xxx andreak jarritako erreklamazioa, ustez ezetsi egin zitzaiolako informazio publikoa jasotzeko Urretxuko Udalean aurkeztu zuen eskaera.

### AURREKARIAK

1.- Espedientean egiaztatuta dago, 2019ko azaroaren 5ean eta 25ean eta 2020ko otsailaren 12an xxx andreak informazio publikorako 3 eskaera egin zituela Urretxuko Udalean, erregistro orokorrean erregistratutako idatzi banaren bidez. Horien bidez, honako hau eskatu zuen Urretxuko Iparragirre kaleko etxabe-lokal bati buruz:

- azaroaren 5eko idazkian, lokalaren titularra nor den jakitea,
- azaroaren 25eko idazkian, egingo ziren egokitzapen-obrei buruzko informazioa,
- eta otsailaren 12ko idazkian, establezimendu horretan egindako bilera-edo jolas-zentroko jardueraren administrazio-espeditatearen kopia.

2.- 2020ko azaroaren 23an, xxx andreak formulatutako erreklamazioa sartu zen Informazio Publikoaren Sarbidarako Euskal Batzorde honetan. Erreklamazio horretan, informazio publikorako sarbidea ukatu zitzaiola argudiatzen zuen; zehazki, honako hau adierazten zuen:

*«Urtebete daramat nire herriko udalari eskatzen nire etxe azpian ireki duten lokal baten administrazio-espeditatean bildutako dokumentazioa emateko, baina ez dut erantzunik jaso. Denbora-tarte horretan, 3 eskaera aurkeztu ditut eta Arartekoarengana jo dut, baina udalak erantzun gabe jarraitzen du».*

Idazki horrekin batera, Urretxuko Udalari egindako eskaera horiek egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu zuen erreklamaziogileak, baita Arartekoak 2020ko irailaren 17an emandako 2020IR-826-20 Ebazpenaren kopia bat ere; Arartekoaren ebazpen hori xxx andreak erreklamazio horretan formalizatutako kexari buruzkoa da, eta, bukaeran, Urretxuko Udalari gomendatzen zitzaion berariaz ebatz zezala aipatutako hirigintza-espeditatean jasotako dokumentazioa eskuratzeko eskaera.

3.- 2020ko azaroaren 27an, Batzorde honek Urretxuko Udalera bidali zuen, elektronikoki, erreklamazio hori, txostena egin zezan eta gaia ebazteko esanguratsutzat jotako dokumentu guztiak aurkez zitzan hamar egun balioduneko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita. Jakinarazpen hori azaroaren 27an bertan onartu zen.



4.- 2020ko abenduaren 16an, Urretxuko Udaleko alkatearen idazki bat sartu zen Batzorde honetan, Nire Karpetaren bidez, zegokion Espedientean. Idazki horretan zera jakinarazten da, lokal hori udal-titulartasuneko delat –eta, horrenbestez, ziurtagiri tekniko bat duela (espedientean jasota dago ziurtagiri hori)–, eta ziurtagiri horren bidez, egiaztatuta geratzen delat lokalak dagokion jarduera egiteko baldintza teknikoak betetzen dituela; kasu horretan, jarduera hori udalerriko artisauen elkartearen lanak erakustea da, erakusgai dauden lanak euren tailerretan egiten baitituzte artisauak.

Era berean, idazki horretan hau ere adierazten zuen Urretxuko alkateak: udal-arkitektoak telefonoz jakinarazi zion interesdunari lokal horrek zer-nolako jarduera hartuko zuen eta horretarako egingo ziren eraberritze-obrek zer ezaugarri izango zituzten, eta, gainera, erreklamazioileari argitu egin zizkiola zalantzak, (hots, lokal horretan zer jarduera egingo ziren, zer ordutegitan eta zer obra gauzatuko ziren); nolana ere, idazkian ez zen ageri telefono bidezko elkarrizketa hori noiz izan zuten.

Zera ere adierazten zuen alkateak, interesdunak eskatuta, bilera bat egin zela eta alkateak berak ere parte hartu zuela bilera hartan, aztergai dugun erreklamazioaren edukiarekin zerikusirik ez zuten beste gai batzuk argitzeko, baina erreklamazioileak lokal horri buruz zituen hainbat zalantza argitzeko balio izan zuela bilerak, zeina 2020ko abenduaren 16an egin baitzen. Bilera horren akta –udal-teknikariak emana– eransten zitzaion idazki horri. Bertan, hain zuzen ere, bilera hartan kasu horri buruz egindako galdera bat eta galdera horri emandako erantzuna jasotzen ziren. Alegazioen idazkian azaltzen denez, Udalak ulertu zuen interesdunaren eskaerari behar bezala erantzun ziola horren guztiaren bidez, eta, honenbestez, ez zela beharrezkoa horri buruzko dokumentaziorik bidaltzea.

Azkenik, idazkian zera ere adierazten du, Arartekoak 2020ko irailaren 17ko 2020IR-826-20 Ebazpenaren bidez egindako gomendioari jarraikiz, 2020ko abenduaren 11n eta 2420. irteera-erregistroarekin, interesdunari erreferentziako espedientean bildutako dokumentazioa bidali zaiola.

Comentado [AS1]: Jatorrizkoa oker

## **BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA ETA ERREKLAMAZIOAREN ONARGARRITASUNA**

1.- Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren 1. artikuluan ezartzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoan Informazio Publikoaren Sarbidetako Batzordearen erantzukizuna izango da Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen (hemendik aurrera, GIBGOL) laugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako zereginak betetzea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 65. artikuluan ezarritako araudiarekin lotuta.



2.- Era berean, Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuak 3. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Batzordeari dagokio ebaztea Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komun edo toki-erakundeetako administrazio publikoen eta EAEko sektore publikoko gainerako erakundeen berriazko nahiz ustezko ukatzei buruz aurkezten diren erreklamazioak, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzei buruz GIBGOLek 24. artikuluan xedatutako aurkaratze-araubideari jarraikiz.

3.- Bestalde, GIBGOLen 13. artikuluan ezartzen denez, informazio publikotzat hartzen dira I. tituluaren aplikazio-eremuan aipatutako subjektuen esku dauden eduki edo dokumentuak, haiek beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu dituztenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere. Beraz, Batzorde honek erreklamazio hau ebazteko eskumena dauka, eskatutako informazio publikoa Urretxuko Udalaren esku baitago. Izan ere, informazioa administrazio horrek egin edo izapidetu du.

4.- Informazio-eskaerak 2019ko azaroaren 5ean eta 25ean eta 2020ko otsailaren 12an aurkeztu zituen xxx andreak Urretxuko Udalean, Udaleko erregistro orokorraren bidez, erreklamazioan bertan erantsitako dokumentu gisa jasotzen den bezala. GIBGOLaren 20.1. artikuluan ezartzen denari jarraikiz, Urretxuko Udalak hilabeteko epea zuen ebazpena eman eta jakinarazteko. xxx andreak adierazi zuen egindako eskaerari ez diotela erantzun, eta Urretxuko Udalak alegazio-idazkian aitortzen du ez ziola xxx andreak erantzun formalik eman uste zuelako erreklamaziogilearen eskaera jada bete zuela eskatutako informazioa emateko telefono bidez eta aurrez aurre emandako erantzunekin. Hala ere, interakzio horiek 2020ko otsailaren 12ko eskaeraren aurretik gertatu ziren. Eskaera horretan, formalki eta lehen aldiz eskatzen zuen interesdunak aipatutako establezimenduan gauzatuko zen jardueraren (bilera- edo jolas-zentroa) administrazio-espeditetaren kopia bat. Horregatik, administrazioaren isiltasuna hirugarren eskaera horri dagokionez hartu behar da kontuan, interesdunari ez baitzioten hirugarren horretan erantzun, eta, horrenbestez, eskatutako administrazio-espeditete horretan bildutako dokumentuetarako sarbidea ematen zaio interesdunari.

5.- xxx andreak 2020ko azaroaren 23an jarri zuen mintzagai dugun erreklamazioa Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzorde honetan. Horretarako, aipaturiko GIBGOLaren 24.2. artikulua dioenez, erreklamazioa hilabeteko epean jarriko da, aurkaratutako egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik edo administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

6.- Bestalde, goian aipatutako Legearen 24.3. artikulua dioenez, erreklamazioa izapidetzean, kontuan hartu behar da Administrazio Publikoen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak errekurtsoei buruz dioena (gaur egun, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura



Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeari begiratu behar zaio). Hori dela eta, azken Lege horren 122.1. artikuluan xedatuta dagoenez, errekurritutako administrazio-egintza espresua ez bada, eskatzaileak eta izan litezkeen beste interesdun batzuek gora jotzeko errekurtsioa jar dezakete, noiznahi, araudi espezifikokoaren arabera administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera. Hori dela eta, erreklamazioa epe barruan jarri dela ulertu behar da.

7.- GIBGOLen 12. artikulua aitortzen duenez, pertsona guztiek dute informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. 17.3. artikulua eranstean duenez, eskatzailea ez dagoela behartuta informazioa eskuratzeko eskaera arrazoitzera. Hala ere, informazioa eskatzeko arrazoiak eman ahalko ditu, eta aintzat hartu ahalko dira arrazoi horiek ebazpena idaztean. Arrazoirik ez ematea, ordea, ez da, berez, eskaera ukatzeko kausa izango.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Batetik, nabarmentzekoa da garrantzitsua dela berriazko erantzun bat ematea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusten den bezalaxe; zehazki, honako honetan oinarrituta dago hori: edukia ematea erantzunaren baldintza zehatzak ezagutzeko eskubideari eta dagokion administrazio- eta jurisdikzio-organoetan ebazpen horren aurkako errekurtsioa jartzeko eskubideari.

Aztergai dugun kasuan, adierazi beharrekoa da espediente eta erregistro publikoetako dokumentazioa eskuratzeko eskaerak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. artikuluan eta Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 20. artikuluan eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera arautzen direla.

2.- Eskatutako informazioaren azterketa zehatzari ekiteko, beharrezkoa da azpimarratzea informaziorako eskubideak garrantzi berezia hartzen duela hirigintza-esparruko denean. Hala, araudi erregulatzaileak berriaz aurreikusten du hirigintza-informaziorako sarbidea izateko eskubideak zabala izan behar duela eta ez dela inolako interesik alegatu behar eskubide hori gauzatzeko.

Zehazki, informaziorako sarbidea izateko eskubidea urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 5. artikulua c) letran ezarrita dago (dekretu horren bidez, Lurzoruari eta Hiri Zaharberritzeari buruzko Legearen testu bategina



onartzen da), baita Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8. eta 9. artikuluetan ere.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8 artikulua herritarren parte-hartzearen printzipioari buruzkoa da, eta besteak beste, eskubide hauek dakartza: «*Plangintza izapidetzeko eta egikaritzeko prozeduretan eta hirigintzako diziplinari dagozkion prozeduretan interesatu gisa agertzeko eskubidea, horretarako legitimazio berezirik egiaztatu beharrik gabe*»; eta «*Herri-administrazio eskudunen artxiboetan dauden agiriak ikusi eta haien kopia eskuratu ahal izateko eskubidea, kasuan kasuko herri-administrazioak erabakitako eran eta legeetan oro har ezarritako mugekin ez besterekin*».

Legearen 9. artikulua, «Jendaurreko informazioaren printzipioa» izenekoak, honako hau xedatzen du:

*«1. Indarrean dagoen plangintza osatzen duten agiri guztiak publikoak izango dira. Jendartean ezagutaraziak direla bermatzeko, eskumena duten herri-administrazioek, iragarpen eta argitalpen ofizialak egiteaz gain, eginbehar hauek izango dituzte: ...*

*c) Edozein pertsonak ondasun higiezin jakin batzuei aplikatzekoa zaien hirigintza-antolamenduaren ziurtagiriak edo kopia ziurtatuak eskatuz gero, eman egin beharko dizkiote.*

*2. Pertsona guztiek, fisiko nahiz juridikoek, aurreko c) apartatuaren arabera emandako administrazio-agirietan jasotzen den informazioarekin bat etorritz jardun ahal izango dute. Informazio horren egiazkotasunari eta zuzentasunari buruz izan daitekeen konfiantza bidezkotzat joko da, hala badagokio, herri-administrazioen ondare-erantzukizunaren ondorioetarako. Okerrik izanez gero, eginiko dokumentuek ez dute administrazioa lotzen, kalte eta galerengatiko ordainak alde batera utzita».*

3.- Kasu honetan, kontuan hartu behar da Urretxuko Udalak jada eman diola eskatutako informazioa erreklamaziogileari, epez kanpo bada ere, 2020ko abenduaren 11n, 2420 irteera-erregistroarekin, eta erreferentziako espedientean dagoen dokumentazioa erantsi dio.

Aurrekoa aintzat hartuta, Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeak, aho batez, honako hau

#### **EBAZTEN DU:**



**Lehena.-** xxx andreak jarritako erreklamazioa arrazoi formalengatik baiestea; Urretxuko Udalean informazio publikoa jasotzeko aurkeztu zuen eskaera ustez ezetsi egin zitzaiolako jarri zuen erreklamazio hori.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau erreklamaziogileari eta Urretxuko Udalari jakinaraztea.

**Hirugarrena.-** Ebazpena Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen web-orrian argitaratzea, erreklamaziogileari jakinarazpena egin eta datu pertsonalak testutik kendu ostean.

Administrazio-bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa soilik jar daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, 10.1.m) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Batzordekidea

Batzordeburua

María Soledad Gutiérrez Rodríguez

Javier Bikandi Irazabal

Batzordekidea

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino